

Lasarte-Oria XXI: euskararen biziberritzearen alde

**Euskara
Biziberritzeko
Plan
Nagusia**

Lasarte-Orian euskarak galera-prozesua bizi izan du XIX. mendetik 1975. urtera arte, arrazoi sozio-politikoak eta sozio-ekonomikoak tarteko euskarak balioa galdu eta hiztun euskaldunen portzentajea ia %100etik %20ra murriztu baitzen.


Beharrezko joera horri buelta emateko lehen ekimena 1966. urtean burutu zuten lasartearrek Landaberri ikastola sortu zutenean. Harrez gero ekimen pribatu eta publikoak ugari izan dira, eta horiei esker Lasarte-Oriak 2.000 euskaldun irabazi ditu, gaur egun lasartearren %35 ditugularik euskaldun. Gazteen artean, gainera, gehiengoa da euskalduna eta euskaldun hartzaileak gainerakoak.

Euskararen ezagutza areagotu ez ezik, erabileraren eremu batzuk ere irabazi dituzte, batez ere, irakaskuntza eta haurren aisia. Badira, ostera, euskara sendotu beharra duten hainbat esparru, besteak beste, familia, lagunartea, zerbitzuak, komunikabideak, lana edo administrazioa bera.

Lasartearrek badakite, ondo jakin ere, euskara ez dela bere kasa indartuko, neurri eta ekintza zehatzak bideratu gabe. Horregatik, hain zuzen ere, erabaki du Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) prestatzeari

ekitea. Gainera gizartearen eta norbanakoen ekarpenez osatu eta aberastuko da, Plan Nagusia benetan eraginkorra izan dadin.

Gauzak horrela, 1975. urtean Lasarte-Orian euskararen ezagutzaren murrak gorantzako bidea hartu zuenez, espero dugu 2002. urtean erabileraren murrak beste horrenbeste egitea eta, hartara, urte bata bestea bezain gogoangarri gertatzea.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Castellano

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

Niall O Dochartaigh, Irlandako Unibertsitateko irakaslea

"Lurralde antolamendu desegokia da hizkuntzak atzera egiteko arrazoietako bat"

Irlandako Unibertsitateko irakaslea da Niall O Dochartaigh, Soziologia eta Zientzia Politikoa aditua da. Lurralde antolamendu eta plangintzak hizkuntza babesteko zein neurri hartzen dituen aztertu nahirik heldu da Euskal Herrira, aurretik Frisiara, Holandara, eta Italiako iparraldera bezala.

Berripapera: Non da lurralde antolamenduaren eta hizkuntza babesteko neurrien arteko lotura?

Niall O Dochartaigh: Zuzen erantzun baino lehen utzi esaten bai Irlandan eta bai Galesen eztabaida beroa ari dela gertatzen auzi horren inguruan. Irlandan, adibidez, lurralde antolamenduaren eta hizkuntzaren aldeko neurriak lotzen dituen plana onartu berri du legebiltzarrak oraindik orain. Gauza bera Galesen: gobernuak ofizialki esana du hizkuntza kontuan hartu behar dela lurralde plangintzan.

B.: Joera berria da, edo lehendik datorren kezka?

N.O D.: Aski gai berria. Hizkuntzaren aldeko taldeak kezu ziren, lurraldearen plangintza egiterakoan hizkuntza egoera babesteko neurriak aurre-

ikusten ez zelako. Izan ere, lurralde antolamendu desegokia da hizkuntzak atzera egiteko arrazoietako bat. Nola Irlandan hala Galesen maiz gertatzen da irlandera edo galesa hitz egiten duten herri txikietara kanpoko jendea joatea, bizitzera. Eta, berez, nahikoa da herriko populazioaren %20 edo %30 erbestekoa izatea, komunitate osoak ingelesez egin dezan. Jendea hiritik herrietara ari da, ingeles hitzunik dira eta alde guztietara jotzen dute. Baita irlandera edo galesa hitz egiten duten herri itxietara ere, bertan eraikitzen dituzte etxeak eta.

B.: Babes-neurririk hartzeko modurik ba ote?

N.O D.: Hizkuntzaren aldeko taldeek diote jende mugimendu hori, lurraldearen antolamendua, finean, ingurumena zainduz egin behar dela, eta natura ez ezik, giza taldea ere babestu beharra dagoela; hau da, lekuan lekuko bizilagunen hizkuntza egoera ere kontuan hartu behar dela. Oso eztabaida bihurria da, zaila, eta bero-beroa. Oraintxe, ezta-



ZALDI ERO

baida bizi-bizirik dago Irlandan eta Galesen. Nirekiko, guztiz interesgarri da zein erataro eragiten dion lurralde antolamenduak hizkuntzaren bizirau-penari.

B.: Irlandatik zatozkigu eta bertako egoeraz ere jakin nahiko genuke zer edo zer...

N.O D.: Kontu bat baino ez. Irlandako errolda egin zenean orain urte batzuk, hizkuntzari buruzko galdera egin zuten: "Badakizu irlandezaz?" Erantzuna, %30-%40k baietz. Kopuru handia, eskolan ikasten dute eta. Azken erroldan, berriz, bestelako galdera erantsi zioten aurrekoari: "Hitz egiten duzu irlandezaz?" Eta honako erantzun aukerak jarraian: "Behin ere ez. Hilabetean behin. Astean behin. Beti" Ikertzaile batek azterketa egin eta garbi erabaki zuen: "Hara, irlandera hitzunik irlandezaz eguneroko hitz egiten dutenak dira. Bere bizia hizkuntza horretan bizi dutenak" Zenbaterik hitz egiten zuten irlandezaz beti? 30.000 edo 40.000 lagunek. Hau da, %1-ek. Nahiz eta datu ofizialek beti ere gorago jo. Baina joko eremu horretan ari gara lanean.

1

Niall O Dochartaigh, Irlandako Unibertsitateko irakaslea

2

PROTAGONISTA: Mariasun Landa

LABURRAK: AEK-k hitzarmena

"Truke sarea", jakintza truke

ZerNola.net

3

Pentsamenduaren Klasikoak bildumak web orria aurkeztu du

Lekeition ospatu zen UEMA Eguna

4

Lasarte-Oria XXI: euskararen biziberritzearen alde



ZALDI ERO

